

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ehuduala

Geure eredua, zeurea

www.ehu.eus




Aldaketarekin konprometitutako eredu bat

Prestakuntza duala estrategia akademiko berritzaile eta eraginkor bat da. Ikasgelan ikasitakoa lantokiko esperientzia praktikoarekin uztartzen da, eta frogatua dago hori lagungarria dela lana aurkitzeko.

UPV/EHU aitzindaria izan da estatuan prestakuntza duala unibertsitatean erabiltzen. Ikastegia, enpresa eta ikaslea elkarrekin arduratzen dira prestakuntza eta trebakuntza prozesuaz. Eredu honetan ikasleek ikasgelaren eta enpresaren artean banatzen dute eguna.

Gure fakultate eta eskoletan bildutako esperientziari esker, gai izan gara EHUdualean biltzeko gure hezkuntza ereduaren arrakastarako osagaiak eta prestakuntza dualaren ezaugarri espezifikoak.

Ikasturtez ikasturte, gero eta gradu eta master dual gehiago eskaintzen ditugu. Beraz, gero eta arlo gehiagotan daukazu prestakuntza duala egiteko aukera.





25

urtetik gorako
esperientzia dugu

% 25

handitu da gure eskaintza
azken 4 urteotan

i3

EHUduala ezin hobeto
txertatua dago gure
hezkuntza eremuan

Zer da EHUduala?


Etorkizuneko profesionalak modu berritzaile batean prestatzeko bide bat da, geure-geurea. Unibertsitatearen eta enpresaren ikuspegiak uztartuz, ikasleen formazioa aberasten dugu etorkizunean guztiz baliotsua izango zaien esperientzia praktikoarekin.



Eredu honek sendotu eta sustatu egiten du UPV/EHUK prestakuntza dualaz daukan ikuskera, urtez urte bere ikasketa ofizialetan garatuz joan dena, eta aurrerantzean etengabeko prestakuntzako masterretara ere hedatuko dena.



Eredu zorrotza da, baina malgua eta erakargarria ere bai. Etorkizuneko profesionalak unibertsitatean eta enpresan prestatzen ditu aldi berean, ingurune sozioekonomikoaren ezagutza sakonagoa izan dezaten eta lana aurkitzeko lagungarri izango zaizkien gaitasun espezifikoak landu ditzaten.



Eredu honi esker, 822/2021 EDn ezarritako baldintzak betetzen dituen titulazio bat eginez gero, ikasleek "prestakuntza duala" aipamena jasoko dute tituluan. Bestalde, formula honek aukera ematen digu eremu zabalago batean lan egiteko, enpresa eta erakundeekin batera prestakuntza proiektuak eskainiz, adibidez etengabeko prestakuntzako masterretan.



Etengabe hobetzen ari gara erredu hau elkarlanean, prestakuntza duala eskaintzen duten fakultate eta eskolen eta bidaide ditugun enpresa eta erakundeen esperientziaz edanez.



Zer emango dit EHUdualak?

Prestakuntza dualak besteengandik bereiziko zaitu. Ikusi nola.

Elkarren osagarri diren bi alderdi

EHUduala ereduak aukera ematen dizu unibertsitateko prestakuntza akademikoa tartekatzeke zure ikasketekin lotura zuzena duen lan ordainduarekin.

Soft Skills

Zeharkako gaitasunak eta enplegurako gaitasunak EHUdualaren muina dira. Batzuk zein besteak funtsezkoak dira zure etorkizun profesionala hobeto garatzeko.

Lanabesak

Hona hemen EHUdualean emaitzak lortzeko lanabes giltzarriak:

- Elkarlaneko prestakuntza proiektua, hau da, ikasleak UPV/EHUn eta entitatean (enpresa edo erakunde) egin behar duena. Banakakoa da: zuk parte hartuko duzu, unibertsitatearekin eta entitatearekin batera, zure prestakuntza programa taxutzeko lanean.
- Bai unibertsitatean eta bai entitatean tutore bat izango duzu, zure prestakuntza gainbegiratu dutenak ehuduala eredu jarraibideei eutsiz.



Ikasleen

% 100,

enplegurako gaitasunetan
trebatuak

EHUdualeko

19

proiektu

100

enpresa laguntzailetik gora

Gure eskaintza duala

Egunez egun handiagoa

Gradua:

- Prozesu eta Produktuen Berrikuntzaren Ingeniaritza
- Automobilgintzaren Ingeniaritza
- Energia Berriztagarrien Ingeniaritza
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza (Bizkaia)
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza (Gipuzkoa)
- Industria Antolakuntzaren Ingeniaritza
- Bachelor's degree in Biomedical Engineering
- Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa
- Ikus-entzunezko Komunikazioa
- Kazetaritza
- Publizitatea eta Harreman Publikoak
- Soziologia
- Lan Harremanak eta Giza Baliabideak
- Logopedia
- Nazioarteko prestakuntza duala: Automobilgintzaren Ingeniaritzako Gradua+Bachelor of Engineering in Vehicle Development (TH Köln, Alemania)
- Nazioarteko prestakuntza duala: Ingeniaritza Mekanikoko Gradua + Bachelor of Engineering in Vehicle Development (TH Köln, Alemania)

Masterra:

- Fabrikazio Digitala / Digital Manufacturing
- Multimedia Kazetaritza
- Sistema Txertatuen Ingeniaritza

* Ikusi eskaintza eguneratua gure webgunean

LIVE
biotech



"Nire etorkizuna gaur eraiki nahi dut, prestakuntzarik berrituenarekin: horregatik aukeratu dut EHUduala"

Maddi Lorenzo Olasagasti



EHUduala gara

Bazatoz?